



HEZKUNTZA SAILA  
Hezkuntza Sailburuordetza  
Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Educación  
Dirección de Innovación Educativa

**EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzetarako deialdia ebazten duena (2020-2021eko ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz.**

**RESOLUCIÓN de 30 de diciembre de 2020, de la Directora de Innovación Educativa, por la que se resuelve la convocatoria de subvenciones para la adquisición de dispositivos digitales en el curso académico 2020-2021, para su utilización por el alumnado que curse Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato en centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

Hezkuntza sailburuaren 2020ko irailaren 29ko Aginduak gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzetarako deia egiten zuen 2020-2021 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz.

La Orden de 29 de septiembre de 2020, del Consejero de Educación, establecía la convocatoria de subvenciones para la adquisición de dispositivos digitales en el curso académico 2020-2021, para su utilización por el alumnado que curse Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato en centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2020ko azaroaren 26an, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak behin-behineko ebazpena eman zuen, emandako diru-laguntzak adierazita, eta ikaslearen identifikazio-datuak eta emandako zenbatekoa adierazita. Halaber, ukatutako diru-laguntzen zerrenda ere sartu zen, ukatzeko arrazoiak adierazita. Eskatzaileek hamar egun izan zituzten, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

El 26 de noviembre de 2020, la Directora de Innovación Educativa dictó resolución provisional con indicación de las subvenciones concedidas, expresando los datos identificativos del alumno o alumna y el importe concedido. Se incluyeron, así mismo, la relación de las subvenciones denegadas, expresando el motivo de la denegación. Los solicitantes contaron con diez días, a partir del día siguiente de su notificación, para presentar las reclamaciones que consideraron oportunas.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren,

Una vez estudiadas las reclamaciones presentadas,

#### EBAZTEN DUT:

#### DISPONGO:

**Lehena.-** I. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei diru-laguntzak ematea.

**Primero.-** Conceder subvenciones a los alumnos y alumnas de los centros que constan en el anexo I.

**Bigarrena.-** II. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei diru-laguntzak ukatzea.

**Segundo.-** Denegar subvenciones a los alumnos y alumnas de los centros que constan en el anexo II.

**Hirugarrena.-** III. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei diru-laguntzak ukatzea. Ikasle horiek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuten unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2019-2020 ikasturteko deialdian (eskola-materialen osagaien). Errekurtsio horren ebazpenaren arabera diru-laguntza hau lortuko dute ala ez.

**Tercero.-** Denegar subvenciones a los alumnos y alumnas de los centros que constan en el anexo III. Dicho alumnado presentó recurso de alzada en la convocatoria de becas y ayudas al estudio para la escolarización de estudiantes de niveles no universitarios del curso 2019-2020 (en el componente de material escolar). De la estimación de este recurso dependerá la consecución o no de esta ayuda.

**Laugarrena.-** Eskabide bakoitzari esleitutako zenbatekoa 160,21 euro behin betikoa da.

**Cuarto.-** La cantidad asignada a cada solicitud 160,21 euros tiene carácter definitivo.

**Bosgarrena.-** E margo den guztizko diru-kopuruak aurrekontua gainditzen du (1.528.000,00 euro). Lehen aipatutako Aginduaren 5. artikulua arabera, eskatzaile bakoitzarentzako laguntza berrehun (200) euro izango da gehienez, eta muga izango da gailu bakoitzaren fakturaren bidez justifikatutako diru-kopurua. Irizpide horiek aplikatu

**Quinto.-** La cuantía global a conceder excede el crédito presupuestario (1.528.000,00 €). Según el artículo 5 de la orden anteriormente referida, la cuantía de las ayudas será de hasta un máximo de doscientos (200) euros por solicitante, con el límite del importe justificado por la factura del dispositivo concreto. Si, tras la aplicación de los criterios anteriores la cuantía global resultante del total de las ayudas concedidas fuera superior al crédito presupuestario señalado, las cuantías calculadas para cada beneficiario serán reducidas proporcionalmente hasta ajustar el total de las ayudas al referido límite.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2HSJ-ZQKN bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2HSJ-ZQKN en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>



ondoren eman beharreko laguntzetan ateratzen den guztizko kopurua adierazitako aurrekontu-kreditua baino handiagoa bada, onuradun bakoitzari kalkulatu zaizkion zenbatekoak proportzioan murriztuko dira, laguntzen guztizkoa aipatutako mugara egokitu arte.

**Seigarrena.-** Deialdiaren Aginduaren 12. artikulua araberan, Ebazpena ikastetxeari jakinarazi eta hilabeteko epean, ikastetxeak honako hiru puntu hauek ziurtatuko ditu horretarako gaitutako aplikazioaren atalean: eskuratutako gailu digitala bat datorren ikastetxeak eskatzailearen talde osorako aukeratutakoarekin; fakturaren zenbatekoa; eta fakturaren data 2019ko urriaren 3a baino geroagokoa den.

**Zazpigarrena.-** Emandako laguntzen ordainketa aldi batean egingo da, deialdiari ebazpena eman ondoren eta gailuak erosi direla egiaztatu ostean. Ikasle onuradunek ikasketak egiten dituzten ikastetxeetara bidaliko da diru-zenbateko osoa. Apirilaren 1a baino lehen, ikastetxeak Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren aurrean justifikatu beharko du laguntza horiek familiei ordaindu zaizkiela, eta horrela ziurtatu beharko du horretarako gaitutako aplikazioaren atalean

**Zortzigarrena.-** Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeko agindua ematea. Argitalpen horrek jakinarazpenaren efektua izango du hurrengo egunetik aurrera.

**Bederatzigarrena.-** Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

**Sexto.-** Según el artículo 12 de la Orden de la convocatoria, en el plazo de un mes tras la notificación de la resolución definitiva al centro, éste certificará en el apartado de la aplicación habilitado al efecto, los tres siguientes extremos: si el dispositivo digital adquirido se corresponde con aquel por el que haya optado el centro para todo el grupo del o de la solicitante, el importe de la factura, así como si la fecha de la factura es posterior al 3 de octubre de 2019.

**Séptimo.-** El abono de las ayudas concedidas se realizará de una sola vez, tras la resolución definitiva de la convocatoria y tras comprobar que se ha realizado la compra de los dispositivos, remitiéndose el importe total a los centros donde cursen los estudios los alumnos y alumnas beneficiarios/as. Antes del 1 de abril, el centro deberá justificar ante la Dirección de Innovación Educativa el abono de estas ayudas a las familias, certificándolo así en el apartado de la aplicación habilitado al efecto.

**Octavo.-** Ordenar que se publique la presente Resolución en el tablón de anuncios de la sede electrónica del Gobierno Vasco. Esta publicación tendrá efectos de notificación a partir del día siguiente.

**Noveno.-** Contra esta resolución definitiva podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Educación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la notificación.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 30a.  
Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2020.

**Izpta./Fdo.: Lucía Torrealday Berrueco**  
**Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria**  
**Directora de Innovación Educativa**

**ERANSKINAK****ANEXOS**

**1.ERANSKINA:** EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA.

**ANEXO I:** LISTADO DE BECAS CONCEDIDAS.

**2. ERANSKINA:** UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA.

**ANEXO II:** LISTADO DE BECAS NO CONCEDIDAS.

**3.ERANSKINA:** UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA. GORA JOTZEKO ERREKURTSOA AURKEZTU ZUTEN UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA - LAGUNTZETARAKO 2019-2020 IKASTURTEKO DEIALDIAN (ESKOLA-MATERIALEN OSAGAIAN).

**ANEXO III:** LISTADO DE BECAS NO CONCEDIDAS. PRESENTARON RECURSO DE ALZADA A LAS BECAS Y AYUDAS AL ESTUDIO PARA LA ESCOLARIZACIÓN DE ESTUDIANTES DE NIVELES NO UNIVERSITARIOS DEL CURSO 2019-2020, EN EL COMPONENTE DE MATERIAL ESCOLAR.